

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juan Zamora Malkorra

*Donostia,
Gipuzkoa
(1924-2011)*

Aurkibidea



Biografia



Donostiako Berio auzoko (Antigua) Beriyoazpi baserrian jaioa, umetatik trebatu zen baserriko lanetan. Ama eta arreba San Martin azokara joaten ziren, zaldi-karroan, berdura saltzera. Esnea ere partitzen zuten. Bederatzi esne-behi eta bi idi zituzten, baita txerriak eta oiloak ere. Baratzea beti beteta, eta sagar arbola ugari. Sagardoa egiten zuten, urtean 20.000 litro inguru; izan ere, sagardotegia zuten Matia kalean, beste familia batekin erdibana. Seme zaharrena izaki, baserrian geratu zen; Hori bai, ez ziren etxejabeak, maizterrak baizik. Albizturgo Joxepa Elolarekin ezkondu zen, eta hark plazara joaten jarraitzen du orain ere. 1980ko hamarkadan baserria bota egin zuten, Ibaetako kanpusa eta inguruko etxeak egiteko. Errotaburun bizi dira orduetik, Gure Berio etxean.

Zintak

DON-016

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-09-22
- **Iraupena:** 68 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Oruesagasti, Ainitze - Etxeberria, Eider - Agirre, Eli

Pasarteak

1. Baserrian beti lanean

- **Erref:** DON-016/002
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:01:14. **Bukatu:** 00:03:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Berioazpi baserrria nolakoa zen: handia, lur asko zituen. Lau senide ziren, baina bat sei urterekin hil zen. Etxean jaiotzen ziren lehen. Beti lanean, baita gauez ere batzuetan. Ganadua.</p>

Transkripzioa

- Beriyoazpi zan baserri earra. Haundiya, zabala eta terrenuak e oso gozuak edo egokiyak pixkat beti zea pixka batekin, baño hemen mendiya ez... erribera re ez, baño tamañakua. Earra! Gu han bizitu giñan. Han jaio nitzan. Han hazi nitzan. Han bizi nitzan.

- Ta zenbat senide ziñeten? Zuek?

- Gu lau izandu giñan. Bat gaztetan hil zan. Sei urtekin. Gaztena. Ta geo, ni hurrena, arreba eta geo beste anaya. Osea bi anai eta bi arreba giñan.

- Eta e... aiton-amonak zuekin bizi zian?

- Ni... aitona ezautu nun, baino amona ez naiz goatzen. Aita ta ama gukin, danak etxian... familiya han bizi. Jayo han bertan e! Etxian, baserrin bertan jayo e!

- Lehen e... ez zan juten ospitalera jaiotzera?

- Ez, ez. Oingo kontuek ez zeon /etzeon/ lehen. Bertan jaio ta bertan hazi ta bertan segi hantxe! Lan ta lan... jai ta aste ta ez dao /eztao/ jayik. Han ez dao /eztao/ oporrik eta... benga! Eguna bazan ta gaba bazan askotan... gabian e ein in bihar o ikulluan o behia ume iten zeola o... hau dala o gaxo zeola eo... hari in bihar!

- Eta...

- Gu gaztiak bezela jai atzaldian jai iten gendun, baño beste gañontzian ez zeon /etzeon/ jayik! Goizian jeiki ta ikullua korrika! Ta geo, hantxe... lan ta lan. Jayian e mezeta jute giñan nolabaite korrika gozian, ta etorri ta lanea! Ganaujaunak in ta bestiei zeoze in biharra ere bai ta... Hantxe!

2. Umetako jolasak

- **Erref:** DON-016/004
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:03:15. **Bukatu:** 00:04:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Umetako jolasak: kanikak, gordeketan. Mendi aldera joaten ziren auzokoak. Kirolik ez zegoen orduan. Mutilak eta neskak aparte, jolas desberdinak.</p>

Transkripzioa

- Jolasik orduan nik kaniketan asko, behintzat! Ta zean... bullan o zean... gordeketan ta... holaxeko kontuk izete zian. Ez zian /etzian/... mendi aldiian ibili pixkat jolasian ta alkarrekin ta holakoxe jolas. Ordun... ordungo jolas hoik zian. Eztu oin... gaur bezelako zea... jolasik! Denporteik iya ez zan / etzan/ kasi ordun ta... gaur egunian dana deportia dao baino!

- Eta norekin ibiltzen ziñan? Auzoko beste...
- Auzoko mutillak edo... juntatze giñan kuadrilla bat eta hantxe.
- Eta mutillak mutillekin eta neskak neskekin ibiltzen ziñeten?
- A bai, bai, bai, bai, bai, bai. Hori... behin e ez junta... alkarrekin.
- Ez?
- Danak mutillak bakarrik ta neskak bakarrik, garai hartan.
- Ta desberdiñak zian mutillen jolasak eta neskenak?
- Bai, hoixe. Mutillen jolasak eta neskanak desberdiñak. Hoixe.

3. Eskolatik bueltan, baratzeko lanetan

- **Erref:** DON-016/005
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:04:13. **Bukatu:** 00:06:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Umetako lanak baserrian. Eskolan ibili zen 12-13 urte arte, eta etxean zain egoten ziren. Baratzeko lanak. Eskolan sei urterekin hasi zen. Udal eskolan ibili zen lehenengo eta gero Lourdes eskolan, beti erdaraz. Euskaraz lagun artean. Ondo portatuz gero, zigorrik ez.</p>

Transkripzioa

- Eta baserriko lanak e... zu mutikua ziñala ze lan iten zenitun?
- Gu mutikuak giñala eskola jauten giñan gaztetan. Ibili giñan bastante aldi... 12 urte bat urte arte, 13 bat urte ibili giñan, eta... han etxian zain eoten zian [...] Etxia juaten giñanian lanean hasteko! Baratza re asko iten gendun, ta barantzan lan asko bihar da! Gauza pollita da e..., baño lan asko in biharra da. Ta aita ta ama han eoten zian zain "Etorri honea. Hau in bihar da ta hoi in bihar da ta! Etorri ta ekarri hua ta... Aizu, ekarri atxurrak ta...". Holaxe, hantxe geatu be behin hanka gañian jarri giñan ezkeo! Bai.
- Eta eskolara... zenbat urtekin hasi ziñan jutun?
- Eskola juteko ta... sei urtekin ta hola hasten zan. Orduan ez zan /etzan/ oin bezala. Bi urtekin ez zan /etzan/ jutun ordun eskola. Ordun, sei urtekin edo hola. Ta ahal zunak ahal zun arte. Ni 14... 13-14 urte arte ibili nitzan.
- Eta nora jutun ziñan?
- Antigua. Antigua... aurrena batian ibili nitzan, Lurdes edo... munizipaletan aurrena ibili nitzan. Bai. Ta geo, Lurdes edo... bazan zea... beste partikular bat, ta geo handik beste toki batea pasau ziaten, eta han bukatu nun.
- Eta beti erderaz zian eskolak ala?
- A, bai erderaz eskolak. Ordun, garai hartan ez zeon /etzeon/ euskaraz iteik e! Dana erderaz. Gu... gu euskeraz aitzen giñan e! Geen artian, baño... eskolan ta ez zeon /etzeon/ ordun euskeraz... euskeraz iteik.
- Ta oso zorrotzak zian eskolan? Zigorrik eta jartzen zuten?
- Ba, neurrin. Ez, ni e... han ondo portatuzkeo eztue neurrik jartzen e. Norbeak portatu behar du ondo. Norbera ondo portatzen ba ez dao /eztao/ ze [...].
- Ta toki berera... zure arreba ze jutun zan beste toki batera eskolara?
- Bai. Hua beste toki batea jutun zan. Hua zea... eztakit noa jutun, baña Antigua... hua re Antigua jutun zan. Eztakit esateko, baña ya ahaztu

zaizkit.

- Monjetara ala bestela?
- Ez, bestela. Bestela zan.

4. Igandero mezara, Antiguara

- **Erref:** DON-016/007
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:07:34. **Bukatu:** 00:08:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Igandero mezara, Antiguara, goizeko seietan, oinez. Autorik ez zegoen orduan, baina bide ona zuten.</p>

Transkripzioa

- Lehen esan dezu mezetara ta juten ziñetela.
- Bai.
- Igandero?
- Aitta... hoi ez zan /etzan/ falta. Hoi ez zaon /etzaon/ faltatzeik.
- Ta ze ordutan izaten zan meza?
- Meza, ba, gu Antigua juten giñan ordun garai hartan. Ta asten zihar seyetan, eta....
- Goizeko seiretan?
- Ta ordubata arte. Ordu erditik edo hiru ordu laur... ordutan edo hola...
- Eta nola juten ziñeten? Oñez elizara ala...
- Oñez, ordun ez zeon /etzeon/ bestik ezerre. Dana oñez. Automobillek etzeon ordun eta... bizikleta batematek baldin bazun eta... guk ez giñun eta oñez. Ordu laurden bateko biria edo hola hogei minutu.
- Eta eramaten zenuten oñetakoik gero aldatzeko?
- Ez.
- Ez?
- Etxian jantzita harekin.
- Batzuk esaten dute bestela...
- Bai, batzuk mendin bixi zianak eta toki txarretan ibili, bide txarretan... Guk hortan suertia bagenu. Bire ona giñun.

5. Baserriko abereak: behiak, txerriak, oiloak

- **Erref:** DON-016/009
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:09:04. **Bukatu:** 00:10:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Bederatzi-hamar esne behi eta idi pareia izaten zituzten. Txerriak ere bai: erosi eta hazi egiten zituzten. Gose garaian hiltzen zituzten. Odolkiak. Txerri-jana tabernetan batzen zen: ogi puskak, platano azala... Oiloak, arrautzak.</p>
<p>

Transkripzioa

- Beatzi-hamar behi ta iri-paria ta zaldiya.
- Esne-behiak zian?
- Esne-behiak beatzi. Beatzi-hamar edo... beti ez zian /etzian/ berdin-berdin izaten, baña... Ta geo, hayen umiak txekorrak beste... beste hanbeste edo inguru.
- Eta txerririk bai?
- Txerriyak e bai. Etxian ez zian /etzian/ [...] izaten txerra amaik ez. Geo, erosita ekarri umiak... hola koxkorak, hazi ta saldu.
- Eta txerririk ez zan hiltzen etxian?
- E?
- Txerri...
- Txerriya? Bai. Hiltzen giñun, bai. Urte batzutan, orduan, gose urtia pasa, izandu zan ta ordun hiltzen genduen bai txerriya re. Urten...
- Eta gero, odolkiyak... in?
- E?
- Odolkiyak gero?
- Odolkiyak e bai. Iten zian... emakumiak iten da. Jan e bai gustoa ta.
- Eta nork iten zitun odolkiyak?
- Amak zakin odolkiyak iten. Han Orexan e bai. Beti. Ohitua zan hua gaztetan ta. Amak eta... geo arrebak eta hola.
- Eta txerriei ze ematen zitzaion jaten?
- Txerriyai? Guk ibiltzen giñun zea... txerri jana esaten ziyoena. Zean biltzen... tabernetan o hoteletan biltzen zan... geatzen zana zean...
- Naranja azalak eta?
- Naranja azalak e bai... Ez zuen /etzuen/ nahi izaten. Platano azala hobia, nahiyo. Ta ogi puska ta saltsa zeako saltsa ta... kazueletako saltsa ematen giñun guk, ta beste arto pixkat igual baldin bazan ta holaxe.
- Ta oilorik bazenuten.
- Bai, oilluak e bai. Beste pixkat... beste dozena bat edo hoge bat edo. Hantxe. Ta arrautz batzuk eta etxeako ta... Geo pixkat saldu ta... holaxe.

6. Esnea partitzen; San Martin azokara zal-di-karroan

- **Erref:** DON-016/010
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:10:56. **Bukatu:** 00:12:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Esnea saltzen zuten, gehiena Gurutze Gorrira. Etxetara partitu eta San Martin plazan saldu ere bai. Aita-amak joaten ziren zal-di-karroan, egunero; ama saltzen geratzen zen. Barazkiak.</p>

Transkripzioa

- Eta esnia saldu iten zenuten?
- Bai, esnia saldu. Guk eramaten giñun gehiyena... 'Cruz Roja' o Gurutze Gorria. Ta handik [...] hara ematen giñun. Portziyoik handina hara ematen giñun. Ta geo, beste pixkat plazan saldu ta... pisueta partitu re bai beste pixkat ta holaxe.
- Eta plazara nor... nor juten zan? Plazara...
- Ama.
- Ta San Martin...
- San Martiñea, bai.
- Eta hola juten zan?
- Zaldiya ta karruakin.
- Zaldia ta karruakin.
- Bai. Aita ta biyak juten zian. [...] Ama hua han geatu, ta aita etxea etorri.
- Ta egunero juten zan?
- Egunero-egunero. Egunero. Jai ta aste. Egunero.
- Ta ze eramaten zun... karruan?
- Esnia, behintzat parte bat eta geo berdura. Berdura iten zana. Letxuga zala, aza, porrua ta iten zana... baina ta tomatia ta... eiten zana batzan. Ta hantxe.
- Sasoian sasoikua orduan?
- Bai, sasoian sasoikua.

7. Esnea saltzeko debekua

- **Erref:** DON-016/011
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:12:01. **Bukatu:** 00:12:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Gurelesa sortu zenean, esnea saltzea debekatu zuten. Hala ere, segitu zuten pixka bat eramaten.

Transkripzioa

- Eon zan esnia partitzeko debekun bat, ez? Ez zuten uzten.
- Geo etorri zan Gurelesa jarri zanian, Gurelesak debekatu zun, harrek bilduko zitula danak, eta baserritarrek [...] txarra ematen zutela, ta ez dakit zer, ta badakit zer. Eta holako kontukin galazi guri, ta hari eman poderia, ta harek beak nahi dun guztiya in, ta harrek libre. Ba al dakizu zer gertatu zan?
- Baiña egoten zian trikimailluak esnia eramateko manta azpiyan gordeta ta? Manta azpiyan gordeta eramaten zutela batzuk esnia.
- Bai, esaten zuen pixkat eramaten zuela. Guk eramaten genun zea, gurutze gorria ta pixka bat bai, lehen bezela ez, baiño eramaten gendun.

8. Behiak zezenetara; perratzaileak

- **Erref:** DON-016/012
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:12:49. **Bukatu:** 00:15:27

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Behiak zezenetara inguruko baserrietara, intseminaziorik ez zegoen. Susara jartzen ziren. Txahala egiten nola lagundu. Batzuetan arazoak izaten zituzten. Perratzailearengana idiak eramaten zituzten, eta behi batzuk ere bai. Antigua sarreran zegoen.</p>

Transkripzioa

9. Idien lanak eta baserriko tresnak

- **Erref:** DON-016/013
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:15:27. **Bukatu:** 00:17:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Idien lanak zeintzuk ziren. Zaldia ere erabili zuten baserriko lanetarako. Goldea eta area. Aitzurra, hortz-bikoa, igitaia, sega, eskuarea. Belar metak. Ganbaran, babarruna eta artoa.</p>

Transkripzioa

10. Artoa zuritzen; kanturako afiziorik ez

- **Erref:** DON-016/014
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:17:34. **Bukatu:** 00:19:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Artoa zuritzen denak ibiltzen ziren, egunero ordubete. Kanturako afiziorik ez zuten. Orduko bertsolariak; auzoetan izaten ziren, eta batzuetan joaten ziren, baina ez sarri.</p>

Transkripzioa

11. Erromeriara jaiero, baina begira egotera

- **Erref:** DON-016/015
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:19:03. **Bukatu:** 00:21:30

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Lanbideak » Neskameak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Erromeriara, jaiero. Begira egoten zen, dantzarako afiziorik ez zuen eta. Irubiden eta Oilalumen. Tranbian. Ilunabarrean etxera. Trikitia eta dantza lotua. Goierri aldeko neskame asko zegoen Donostian.</p>

Transkripzioa

12. Lehengo janzteko modua

- **Erref:** DON-016/016
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:21:30. **Bukatu:** 00:24:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Janzteko modua nola aldatu den: lehen, ahal zen bezala. Baina gaur orduan baino itxura okerragoan ibiltzen direla dio. Abarkak. Galtzerdiak eta "mantarra". Zakua buruan, euria zenean.</p>

Transkripzioa

13. Feriara Hernanira eta Tolosara; haziak

- **Erref:** DON-016/018
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:24:24. **Bukatu:** 00:26:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa

Laburpena:

<p>Feriara joaten zen, baina gaztetan ez. Aita joaten zen tarteka, baina afiziorik ez zuen. Hernanira eta Tolosara. Baserriko tresnak. Haziak, Ibarrako landarezaleak. Etxean ere egiten zituzten haziak. Aurrerapenak.</p>

Transkripzioa

14. Baratzeko lanak, urte sasoiaren arabera

- **Erref:** DON-016/020

- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:26:32. **Bukatu:** 00:28:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Natura » Meteorologia
- Baserrria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

<p>Baratzeko lanak zeintzuk ziren, urte sasoi bakoitzean: uhaza, ia urte osoan; udaberrian, gehienak. "Ilbeltza". Tomatea, piperrak. Babarrunak, artoarekin batera, maiatzean. "Garagarrila". Ilargiari baino kasu gehiago egiten zioten eguraldiari.</p>

15. Errazionamendu garaia: gutxi eta txarra

- **Erref:** DON-016/022
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:29:10. **Bukatu:** 00:30:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Donostian erosten zuten jatekoa, olio eta. Errazionamendua, gutxi eta txarra. Ogirik ez, taloa egiten zuten artoarekin. Kontrabandua. Babarruna, baserrian beti bazen zerbait. Txerria hiltzean, koipea. Tranpak: bat deklaratu eta bi hil.</p>

Transkripzioa

- Oliyuak eta hoi danak Donostin erosi, bai, bai.
- Hori erosi, ez?
- Bai, bai, dendan.
- Dendan?
- Dendan.
- Eta zu akordatzan zea rasionamenduakin eta...?
- Bai, [...] korrika aldiyak, rasionamentuan ta. Jatekoik ez, ta rasionamentun gauza gutxi ta txarra, ogiya're jateko modun ez dana ta... Guk badakigu artua iten giñun, iya talo pixkat eta handik gehiyo bai, baiño hoi larri ibiltzen zan jendia. Bai, gosiak eta.
- Eta orduan kontrabandua eta egongo zan?
- Bai, ibiltzen zian, hala esaten zuen behintzat, ez dakit ibiltzen zian, gu gutxi ibiltzen baiño...
- Beti baserriyan gose gutxio ez?
- Bai, gutxi beti izaten zan baiño...
- Beti zer jana.
- Bai, zerbait'e o talua edo babarruna edo baba edo... ibili izaten zan baserrin ta. Berdura igual ta. Errexio pasatzen zan. Ogiyik ez ta koipe gutxi ta pixkat sufritu in behar baiño... Geo txerriya'de hil izan, hortako hiltzen zan txerriya'de, koipe pixkat izateagatik eta.
- Eta ezkutuan hiltzen zan txerriya ala...?
- Ez, deklaratu. Oain'e batzutan igual ixkutuan bat deklaratu ta bi hil

edo... Orduan zeozer baiño
tranpatxoak ez?
- Bai, pixkat, in biharra zeon. Ez dao...

16. Sagardotegia zuten Antiguan: sagardoa egiteko modua

- **Erref:** DON-016/023
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:30:51. **Bukatu:** 00:33:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

<p>Sagarra. Sagardoa egiten zuten: 20.000 litro urtean. Sagardotegia zuten Antiguan, beste batekin erdibana. "Xexeneria" esaten zioten, Matia kalean zegoen. Dolarea. Egurrezko pixoiak. Ardatza, prentsa, eskuz estutu. Pitzatu, patsa... Kupelak.</p>

17. Ez mozkortzeko, onena pitarra

- **Erref:** DON-016/025
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:33:29. **Bukatu:** 00:34:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

<p>"Pitarra" zer den azaltzen du: sagardoa, ura botata. Lanerako ona, ez mozkortzeko. Urik ez zen edaten.</p>

Transkripzioa

-Pitarra esaten zitzaion, dana bat da hoi e? Baiño pitarra da sagarduai ura bota. Rebajatu, sagardua rebajatu, ta hua izaten zan basarriako edariya / eraiya/. Zeatik, sagardua naturala edaten badezu udaran, danian haizia beotuta, harek mozkortu iten du, ta egarriya kendu biharrian mozkortu. Ta asko, egarriya donian asko edan behar baita. Ta ure edateko kostunbreik ez zan ordun, ohituraik, ez zan ura edateko zeaik izaten ta, sagardua ta, sagardua rebajatu in bihar, hoixe da pitarra, sagardua rebajatuba.

18. "Kizkia", sagar motak eta kupelak

- **Erref:** DON-016/026
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:34:15. **Bukatu:** 00:36:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

<p>Sagarra batzeko, "kizkia" eta saskia. Sagar motak: patzoloa, mozoloa, gezamina, merkelina... Kupelen neurriak; idiekin eramaten zituzten.</p>

Transkripzioa

- Sagarra batzeko, kizkitza erabiltzen zan?
- Bai, hua bai, kizkiya. Batzuk eskuakin igual aitzen zian baiño guk, gu beti kizkiyakin, ta normalian kizkiyakin.
- Kizkiya, ta saskiya.
- Saskiya, bai, kirtenakin. Ta kizkiya hartu ta "tak" kirtenian jo ta "ttak" ateatzen da.
- Eta ze sagar klase zan, nola zun izena? Bat baiño gehio zeuden, nahastuta?
- Izenak, guk izenez [...]. Patzoluta ta, mozoluta ta, gezamiña ta, potrokillua ta, txoixarra ta, gezazuriya ta, sendisagarra ta, merkeliña ta [...].
- Eta, batzuk izango zian gozuauak beste batzuk baiño.
- Bai, bai. Merkeliña mikatzagua, ta zea zan gogorra ta, zea, mozoluta're mikatza zan baiño ona, sagardua iteko, ona e? Hola, baliyo haundiya izaten zan, ta patzuelua earra zan. Ta geo, Bixkaizaharra're bazan, beste era batekua, gogorra izaten zan, sekua. Ta...
- Zuek orduan sagasti haundiya zea...
- Ba ordun, garai hartan dana sagastiya zan e? Gure garairako pixkat ai zian galtzen ta, baiño orduan dana sagastiya zan, terreno guztik sagastiyak zian ordun. Bai.
- Eta zenbat kupel betetzen zian, horko sagarduakin?
- Guk zazpi kupela giñun. Zazpi kupela, hiru millakuak eta laukuak, lau t'erdikuak eta hola, zazpi. Hoge bat milla litro, hogeita bi, ez dakit, hola inguru hoi.
- Eta gero nola eramaten zan sagardotegiraiño?
- Bai, zea, beste barrika batian. Gurdin jarri barrika ta, zea, bostehun litro eo milla litro eo, holako bat eta idiyakin.

19. Gerra aurreko sagardotegietako giroa

- **Erref:** DON-016/027
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:36:20. **Bukatu:** 00:39:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

<p>Sagardotegira gizonezkoak joaten ziren. Bertsolariak. Basoka saltzen zen sagardoa. Bost zentimora. Jatekoa emateko ohiturarik ez zegoen, norberak eramaten zuen. Antiguan bost bat sagardotegi zeuden inguruan; batetik bestera. Boletara jokutzen zuten. Oraingoak ez dira sagardotegiak. Ehun baso sagardo, ehun tokitan. Gerrarekin bukatu ziren sagardotegiak.</p>

20. Baserriari ez zaio lagundu: desagertu egin dira

- **Erref:** DON-016/028
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:39:45. **Bukatu:** 00:42:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Berioazpi ingurua nolakoa zen. Orduko baserrien izenak esaten ditu. Orain ez dago baserririk han. Herriak ez dio lagundu baserriari, bere ustez. Lehen, kalean baino hobeto bizi ziren baserrian.</p>

21. Antiguako lantegiak; anaia tonelero

- **Erref:** DON-016/029
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:42:13. **Bukatu:** 00:44:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

<p>El Leon garagardoa, Lizarriturri xaboia eta Suchard txokolatea, Antiguako lantegiak. Disko lantegia. Luzuriaga, Lasarte aldean. Anaia tonelero ibiltzen zen, barrikak konpontzen; gaztaina eta haritza.</p>

22. Igeldora ote bila eta festetara

- **Erref:** DON-016/033
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:45:10. **Bukatu:** 00:46:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Baserrria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>Azpiak egiteko, azpigaia: ote belarra. Igeldotik ekartzen zuten. Donostia aldean ez zegoen karobirik, ez ikazkinik. Igeldora festetara ere joaten ziren, sanpedrotan. Danborrada egiten zuten auzoan, San Sebastian egunean.</p>

23. Gerra, gerra ostea eta Francoren garaia

- **Erref:** DON-016/034
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:46:47. **Bukatu:** 00:50:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Hamabi urte zituen gerra hasi zenean. Ez ziren mugitu. Nola hasi zen. Erreketeak Donostiara sartu zirenean, askok alde egin zuten. Gerra ostean, gosea. Soldadu eramandakoek bizimodu gogorra. Euskara debekatuta. "Hable en cristiano".</p>

24. Baserritarren kofradiak

- **Erref:** DON-016/035
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:50:59. **Bukatu:** 00:51:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Baserritarren kofradia ganorazkorik ez. Diputazioak bazuen berea.</p>

25. Ezkontzak eta ezkon-bidaia

- **Erref:** DON-016/038
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:52:53. **Bukatu:** 00:55:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Lehengo ezkontzak nolakoak izaten ziren: gurdiaekin joateko ohiturarik ez zegoen. Goizean ezkondu, eta bazkaria, normalean tabernan. Ezkon-bidaia Iruñera edo Bizkaia aldera, astebeterako. Madrilera joan ziren, lehengusuengana. Gaur egungoa gehiegi iruditzen zaio.</p>

26. Hondartzara, hondar bila; ura, iturritik

- **Erref:** DON-016/040
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:55:11. **Bukatu:** 00:57:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Ez ziren hondartzara joaten; idien azpiak egiteko hondar bila bakarrik. Ondarretako kartzela. Bainatu, ez itsasoan ez errekan. Kanilako urik ez, iturrira ur bila baldearekin. Baserritik gertu. Ur-depositua zuten teilatuan. Ganadua ere iturrira. Askan ura jarri zieten gero.</p>

27. Behiak jezten, zinkezk baldera

- **Erref:** DON-016/041
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:57:24. **Bukatu:** 00:58:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Behiak jezten bera ere ibiltzen zen. Zinkezko baldeak; zulatzen zenean, berria erosten zuten. Gero marmitara pasatzen zuten esnea.</p>

28. Auzolana bai, baina gutxi

- **Erref:** DON-016/043
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:59:05. **Bukatu:** 00:59:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Auzolana izaten zen, baina gutxi. Goierri aldeko ohitura da hori; han laia erabiltzen zen, baina Donostian goldea.</p>

29. Antxoa sororako, simaur moduan

- **Erref:** DON-016/045
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:00:00. **Bukatu:** 01:01:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserrria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

<p>Kaiko giroa. Antxoa asko zegoen, eta saltzen ez zena baserritarrei ematen zieten sororako. Gurdiarekin joaten ziren. Oso ona zen simaur moduan lurrerako. Jan ere egiten zuten antxoa. Txitxarroa. Arrain saltzaileak.</p>

30. Egunero babarruna; Gabonetan otordu berezia

- **Erref:** DON-016/047
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 01:02:05. **Bukatu:** 01:04:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Baserrria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

<p>Artoa, erremolatxa, arbia. Porrua, aza, tomatea. Gabonetako otorduak, pixka bat diferenteak, baina asko ez: baratxuri zopa, bakailaoarekin, oilaskoa... Egunero, babarrunak. Jaietan, babarrun zuria eta garbantzua. Postrea, etxekoa: sagarra, udareak. Gaztainak.</p>

31. Baserriko bizimodua eta abereak

- **Erref:** DON-016/048
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 01:04:15. **Bukatu:** 01:06:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Goizean 05:30 alderako jaiki eta gauean 22:00 arte, eta siestarik ez askotan. Igeldora joaten zirenean, idiekin, ilunabarrean etxera. Segar, sardea... Astorik ez zuten. Txakurrak beti bat edo bi, guardiarako. Untxirik ez zuten. Ardirik ez zen inguruetan. Feriatik ekartzen zituzten, hiltzeko, jateko. Ahuntzik ez.</p>

32. Belarra ontzea, lanik okerrena

- **Erref:** DON-016/049
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 01:06:32. **Bukatu:** 01:07:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

<p>Baserriko lanik okerrena: belarra ontzea eta artoa jorratzea. Azenarioari eta porruari belarra kentzea ere ez da ederra!</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com